




Maiatzaren 17: LGTBI fobiaren kontrako eguna



BADAUZKAGU ERREFERENTEAK

Bisibilizatu errespetatzeko



AZALA.

* Ezin dugu alde zurretik pentsatu gurekin ari diren guztiak, alegia, ikasleak, lankideak, familiaak... heterosexualak direnik.

Ikastetxe guztietan baditugu bitarra den sistematik aldentzen den ikaslerik, bai eta heteronormarekin bat ez datorrenik ere. Denetarik ikasleak ditugu, ikasle anitzak, eta aniztasunaren trataera egokia lantzen ikasi behar dugu eguneroko jardueretan.



Contenido

Sarrera	4
Helburuak	5
Edukiak	5
Haur hezkuntza, Lehen hezkuntza 1 eta 2 maila.....	6
Lehen hezkuntza: 5 eta 6 maila, DBH.....	11
HHE.....	13
IRAKASLEGOA	15
FAMILIAK	17
Eranskinak	19
• HHko jarduerarako marrazkiak	
• Erreferenteak	
• Hiztegi laburra	
Bibliografia – Erabilitako materiala	

Oharra: Proposatzen den jardueretan, gehienetan, koloreak garrantzi berezia du. Hori dela eta, koloreetan inprimatzea aholkatzen da.

100% BADAUDE ERREFERENTEAK. Bisibilizatu errespetatzeko.



BAI BADAUDE ERREFERENTEAK

Bisibilizatu errespetatzeko

Sarrera

Aniztasuna bere osotasunean oraindik ere ikusezin dirauela eta honek gure gertuko iraganarekin harreman zuzena du. Zeren, mundu mendebaldar osoan zehar, gutxienez azkeneko 500 urtez (leku batzuetan denbora gehiagoz), identitatea eta bikote harremanak, hala nola, hauen zergatiak eta helburuak ulertzeko era bakar bat izan da zilegi. Gainera, historian zehar, honen arabera hierarkia desberdinak eraiki izan dira, baita diskriminaziorako era legalak ere.

Honek ezinbestean dakar aniztasunaren gutxiengotzat edota “ez normatibotzat” sailkatuak izan diren identitateak; hori dela eta, izaera nahiz orientazioak ikusgai egiteko esfortzu berezia egin behar da oraindik ere, ez baitago onarpen maila guztiz ziurtaturik gure gizartean.

Beraz, argi dago nolabaiteko dibertsifikazio afektibo eta sexualaren beharrezkoen bat eredu guztiak onartzeko bidean, nolabait esateko, haien ikusgarritasun lantzea dela.

Izan ere, historian zehar, gizarte zein maila sozail bakoitzak aniztasun sexualaren adibide desberdinei buruz, gezur, aurreritzi eta estereotipo desberdinak eraiki ditu.

Alegia, eskubide eta askatasun berdintasun testuinguru eraginkorra izatea beraiena. Baina ez soilik dimentsio material edota juridikoenean, baita ere gizarte mailari begira ere. Erabat beharrezkoa da etorkizuneko herritartasuna eraikitzeko.

Unitate didaktikoaren proposamen nagusia erreferenteak ikusgai bihurtzea da, hauek naturalizatzeko. Honela, Emakumeei mendez mende gertatu zaien moduan, homosexualak hobeagoak direla frogatu behar izan dute; heterosexualak kontuan hartuak izateko besteak baino hobeto egin behar izan dituzte gauzak, hala eta guztiz ere, andrak bezain besteko, hala ere, andrek jasan izan dute diskriminazio berdina eta ikustezinak izan dira.

Ez zen beharrezkoa izan beharko pertsonen genero edo sexu orientazioaren gainean hitz egitea; baina, gure gizartean lortu nahi dugun naturalizaziora heltzeko, erreferenteak bilatu eta bisibilizatzeko premia dago berdintasun erreala lortzeko eta aurreritzi gabeko gizartean bizi ahal izateko.



Helburuak

1. Aniztasun sexualean hezitzea adin goiztirretik.
2. Pertsonen eta familien aniztaunari errespetuaren alde izatea.
3. Familia eta ikasleriaren aniztasun sexualari arreta jarri.
4. berdintasuna, errespetua eta erantzunkizunean oinarritzen diren pertsonenen arteko harremanetan elkarriketa eta komunikazioa sustatzea.

Edukiak

- Haur eta lehen hezkuntza 1-2 maila
- Lehen hezkuntza: 5-6 maila, DBH
- HHE
- Irakaslekoa
- Familiak





Haur hezkuntza, Lehen hezkuntza 1 eta 2 maila

Testu laburra:

Heteroarauan oinarritzen den gizartean bizi gara, heteroarauetan oinarritzen garenez egiten dugun eraikuntza soziokulturalak gure etorkitzuna balditzatzen du. Jaio aurretik hasten da, orduan ere, neska edo mutila izango den galtzen gara/digute. Beste alderdien artean, heteroarauak genero identitateari eta orientazio sexu-afektibitatea nolakoa izango den baldintzatzen du.

Neska edo mutila dela dakigun unean, genero identitatea eleisten diogu, halaber, emakumezkoarena edo gizonarena. Honela, heteroarauak ez dio haurtxoari aniztasunean eraikitze aukera ematen: ume mutil heterosexuak eta haur eme heterosexuak aurreikusten dira bakarrik.

Beraz, jaio aurretik ezarrita daukagu, dagoeneko, rol zehatz batzuk. Rol hauek estereotipoetan oinarritzen dira: emakume eta gizon estereotipoak, hau da, gizon edo emakumeak nola izan behar diren markatzen dituztenak.

Zer egin behar dugun, esan, nola adierazi behar dugun, pentsatu, zertara jolastu behar dugun... eta zer ez dugun esan behar, zer ez egin, zer ez sentitu, adierazi, zer ez dugun pentsatu behar, zertara ez dugun jolastu behar...

Aipatu dugunak eragin handia du identitateak eta genero adierazpenen eraikuntzan, eta, batez ere, LGTBI kolektiboan eragin zuzena du, konturatu barik heteroarau soziokultural sistema errepikatzen dugula, eta honek askatasunean eta berdintasunean oinarritzen den gizartea eraitzen oztopatzen du.

JARDUERAK

1. **Tutoreak azpian dagoen argazkia erakutsiko die ikasleei neska edo mutila den aipatu gabe:**



*Franklin D. Roosevelt EEUUko 32.
presidentea, 1884 urtean.*



-Ikasleek neska edo mutila den esango dute, eta egin duten aukeraketaren aldeko argudioak emango dituzte.

Tutoreak argazkiko umea nor den esango die.

-Ondoren, tutoreak azalduko die gure inguruko janzkera ez dela beti orain ikusten dugun modukoa izan, hau da: neskentzako gonak, mutilentzako frakak, haurtxo neskentzako arrosa eta mutilentzako urdina... Egia esan ohitura hau pentsatzen dugun baino berriagoa da. Azalpena emateko ondorengo dokumentazioan oinarritu ahal da:

1940 baino lehenago, arrosa kolorea mutilentzako zen eta urdina neskentzako. Urdina mutilentzako, indarra, kuraia eta kemena adierazteko erabiltzen zuten, ezaugarri hauek gorriaren eratorritik datoz; aldiz, urdina edo turkesa kolorea, neskentzako erabili izan zen, samurtasuna, biguntasuna eta leuntasunarekin lotzen bait dira.

Urte bat eta sei urte tarteko mutilentzako kolore zuriko erropa erabiltzen zen. 1700 eta 1800 urteetan mutilek ere soinekoak erabiltzen zituzten. Beheko erretratuetan ikusi daiteke: eskerrekoan, 1840. urtean margoztutakoa mutil bat soinekoarekin eta arrosaz jantzita agertzen zaigu; eskumakoan, Luis XVII.a arrosaz jantzita.



Frantziako Maria Teresa eta bere neba txikiena (Luis XVII)

1940. urtetik aurrera, II. Mundu gudan, marketing konbentzioa martxan jarri zen eta hemendik aurrera arrosa emakumen munduarekin lotu izan da. Dendetan nesken eta mutilentzako atalak banatzen hasi ziren eta besteak beste koloreengaitik antzematen ziren eta dira bereziki, urdina mutilentzat eta arrosa, aldiz, neskentzat.



2. Ondoren agertzen diren kuadro klasikoetan, arrosa eta urdina kolorea ez zirela gaurko moduen erabiltzen ikusi daiteke, baizik eta aldrebes.



**Maskorraren
mutilak; Murillo**



**Ivan Khrutsky
(1810-1885)**



Hasta el 28 de abril de 2013 en la Casa del Cordón de Burgos (Plaza de la Libertad, s/n)
Horario: laborables, de 12:00 a 14:00 y de 19:00 a 21:00 horas; domingos y festivos, de 12:00 a 14:00 horas.



Retrato de un Niño con Fusta llevando una Cabra con Correa

Anónimo del norte de Holanda
Hacia 1655-1665
Óleo sobre lienzo
90 x 110 cm
Fundación Yannick y Ben Jakober (Mallorca)



Retrato de Luis XIV y de su Hermano Felipe

Atribuido a Jean Nacret
Hacia 1615-1672
Óleo sobre lienzo
134 x 98 cm
Fundación Yannick y Ben Jakober (Mallorca)



2.1 Ikusten dugunez, ez da beti horrela izan, orain estereotipoak ez errepikatzeko aukera dagukagu. Ziur asko, inor baino hobeto LGBTI pertsonak jakiteko dena ez dela ez arrosa ezta urdina ere; eta kontziente izan gaitzen kolore aniztasuna beharrezkoa dela askatasunean bizi ahal izateko.


2.2. Ikasleek margolarien eta margoen garaiko informazioa bilatzea, honela, era kritikoan ikusiko dugu arrosa eta urdinera egin den murriztapena; fenomeno berria dela konturatzeko.

3. Azpian agertzen diren irudiak margotu:

3.1. Normalean ikusten duguna oinarritzen gara, gure inguruan, koloreak, erropa mota: gona, frakak, jertseak, orrazkerak.....

3.2. Estereotipoak existituko ez balira, **gustzen** zaigun moduan joango ginateke, **askatasunez, aukeratzenez**; eta neska edo mutila garen albora utzita nahi dugun erropa, orrazkerarekn.... Ondoren dauden marrazkiak margotu pautu hauek jarraituz.

(eranskinean marrazkiak handiago eta inprimitzeko prest aurkitu ditzakezue)





Jarduereei sarrera ematen duen testu laburra:

“Bisibilitatea dena da. Ez bagaituzte ikusten, ez bagara manifestatzen ez gara existitzen. Ez bagara existitzen, beste batzuk kontatuko dute gure historia. Gaixoak garela, perbertituak edo delinkuenteak garela esango dute”

- *Giza Eskubideen Adierazpenaren jatorria eta urtea bilatu.*
- *Hausnartu LGTBikoei dagokienez aipatu diren eskubideak ia betetzen diren.*



- *Oraindik ere, historian zehar izan diren LGBTI pertsonak bisibilizatu behar ditugu gure erreferenteak izateko. Hitz egiteko proposatzen den gaia: Etorkizunean ez da orientazio sexualaren gainean hitz egin beharko, ez delako diskriminaziorik gongo.*
 - *Giza Eskubideek egia bihur daitezen proposamenak egin.*
4. **Lehen jardueran proposatutako pertsonentzako gutun bat idaztea bi gai hauen inguruan: gure gizartean eman diren aurrerapausuak, eta diskriminazioa erabat ezabatzeko gelditzen dena. Aurrekoarekin lotuta, pertsona guztientzat gizarte hobeagoa lortzeko proposamenak egin dezatela.**





- *Oraindik ere, historian zehar izan diren LGTBI pertsonak bisibilizatu behar ditugu gure erreferenteak izateko. Hitz egiteko proposatzen den gaia: Etorkizunean ez da orientazio sexualaren gainean hitz egin beharko, ez delako diskriminaziorik gongo.*
 - *Giza Eskubideek egia bihur daitezen proposamenak egin.*
- 4. Lehen jardueran proposatutako pertsonentzako gutun bat idaztea bi gai hauen inguruan: gure gizartean eman diren aurrerapausuak eta diskriminazioa erabat ezabatzeko gelditzen dena. Aurrekoarekin lotuta, pertsona guztientzat gizarte hobeagoa lortzeko proposamenak egin dezatela.**



IRAKASLEGOA

Jarduererri sarrera ematen duen testu laburra:

Paco Tomás idazleak esan zuen:

“Bisibilitatea dena da. Ez bagaituzte ikusten, ez bagara manifestatzen ez gara existitzen. Ez bagara existitzen, beste batzuk kontatuko dute gure historia. Gaixoak garela, perbertituak edo delinkuenteak garela esango dute”

1. Tutoreak unitate honetako taulan agertzen diren pertsonen gizarteari egin dituzten ekarpenak irakurtzen ditu. [\(dokumentuaren bukaeran\)](#). Lehenengo ariketa honetan ikasleei ez zaie esaten zeintzuk diren erreferenteen orientazio afektibo eta sexuala.

1.5. Talde handian, proposatzen diren erreferenteak egindako ekarpenen gainean hitz egin, eta batez ere gizarte aurrerakadan egindako emakarien izan duten garrantzia.

1.6. Irakasleak ikaslegoari erreferenteen orientazio afektibo eta sexuala esaten die eta esan ondoren proposatzen diren jarduerak:

- *Pertsona eta egindako ekarpenaren garrantziari buruz jardutea, baina bere sexu orientazioan zentratu gabe.*
- *LGTBI pertsonak ez diskriminatzearen garrantziaz hitz egitea, denok batera gizarte hobeagoa egin dezakegulako, bai elkarbizitzan baita aurrerapenak arlo zientifikoetan, teknologikoetan, artistikoetan....*
- *Hortaz, zein arrazoiagaitik diskriminatzen zaie gaur egun?*

2. LGTBI pertsonak ez diskriminatzearen alde dauden legeak bilatu.

- *Talde txikietan, lege hauen garrantziaz hitz egin.*
- *Pertsona hauentzako legeak suposatzen duen onuraren gainean hausnarketa egitea, baina baita, aldi berean, euren inklusioarekin nola denok aberasten gaituen ere.*
- *Atera diren ondorioak talde osoan partekatu.*

3. Zer dira giza eskubideak?

Pertsona guztiok, gizaki garen heinean, berez ditugun atributu batzuk dira. Oinarria berezko **duintasunaren errespetua eta gizakion berdintasuna da**; sexua, adina, nazionalitatea, jatorria, erlijioa, hizkuntza, sexu joera, posizio ekonomikoa edo **bestelako baldintzak edozein direla ere.**

- *Giza Eskubideen Adierazpenaren jatorria eta urtea bilatu.*
- *Hausnartu LGTBikoei dagokienez aipatu diren eskubideak ia betetzen diren.*



- *Oraindik ere, historian zehar izan diren LGBTI pertsonak bisibilizatu behar ditugu gure erreferenteak izateko. Hitz egiteko proposatzen den gaia: Etorkizunean ez da orientazio sexualaren gainean hitz egin beharko, ez delako diskriminaziorik gongo.*
- *Giza Eskubideek egia bihur daitezen proposamenak egin.*







- *Oraindik ere, historian zehar izan diren LGBTI pertsonak bisibilizatu behar ditugu gure erreferenteak izateko. Hitz egiteko proposatzen den gaia: Etorkizunean ez da orientazio sexualaren gainean hitz egin beharko, ez delako diskriminaziorik gongo.*
- *Giza Eskubideek egia bihur daitezen proposamenak egin.*



Eranskinak













Erreferenteak

Oso garrantzitsua da LGBTI komunitateak historian, gizartean, kulturean, zientzian... egin dituen ekarpenak gure gazteei hurbiltzea. Hori dela eta, 9 pertsonen biografia, argazkia eta egin duten ekarpenen azalpen txiki bat daukazu.



KARISSA SANBONMATSU Doctorea [Los Alamos National Laboratory](#)n eta baita ere [New Mexico Consortium](#) ikertzaile. Gure gorputzeko DNAko zelulak gure bizitzako gertaerak gogoratzeko orduan ze eragina dituzten ikertzen du.


[TEDWomen 2018 hitzaldi honetan](#) (ingelesez, erderazko azpitituluekin) Karissa Sanbonmatsu galdera honi erantzuna ematen saiatzen da: *zertan datza generoa ?* Berak azaltzen duenez ez dela kromosomen kontua bakarrik dio, eta hitzaldian egin diren aurkikuntza berriak partekatzen ditu. Bizi ditugun esperientziak gure gene-ak nola adierazten diren eta generotaz zer ulertzen dugun eragina dituztela dio.

Ikertzaile trans- Nuevo Mexikoko Berdintasun elkarteko eta Genero indentitateko Zentruko partaidea da. Zientzia arloan LGBTI pertsonen defentzailea.



LANA ETA LILLY WACHOWSKY. Lana eta Lilly zuzendari, gidoilari eta pelikulen produzitzaileak dira. Besteak beste, The Matrix Trilogy, V for Vendetta eta Cloud Atlas, baita Netflixeko Sense8 seriea ere.

2000. urtean Larry transgeneroa zela argitaratu zen eta bere eraldaketa egiten ari zela. 2010 urterako ez zen Larry dagoeneko, baizik eta Lana. Une horretan, 2016. urtean, Lanaren neba, Andyk ere transgenero moduan aurkeztu zen eta orain bere izena Lilly da.



LYNN CONWAY (1938) ingenieritza elektrikoa eta konputazio zientzietan irakasle Michigan-go unibertsitatean. 1960 hamarkadan IBM lantegian egin zuen lan eta bertan ekarpen baliotsuak egin zituen informatikara, IBMko txipak ere garatu zituelarik.

Genero aldaketa egin nahi zuela jakitera eman zuenean IBMtik kaleratu zuten eta guztiz baztertua egon zen. Handik hogeita hamar urteetara bere historia argitaratu zen eta gaur egun egindako ekarpenen errekonozimendua du.



SALLY RIDE (1951 - 2012) Estatu batuetako fisikoa, [NASAko astronauta](#), [1983an espazioara](#) irten zen lehen emakume amerikarra izan zen.

[Hirurogei ta hamar](#) urteetan prentsan agertu zen anuntzio bati erantzun zion, bertan NASArako bolondresak eskatzen zituzten eta hor hasi zen Sallyk NASAn bere ibilbidea. Bera baino lehenago, bi izan ziren espazioara joandako emakumeak [Valentina Tereshkova](#) sobietarra (1963. urtean) eta [Svetlana Savitskaja](#) (1982ean).

NASAREN ibilbidearen ondoren, neska-mutilek zientziak ikas zituzten animatzeko zazpi liburu idatzi zituen.

1985 urtetik bere heriotzararte bere bikotekidea Tam O'Shaughnessyarekin bizi izan zen. Harreman hau bere heriotza ondoren argitaratu zen.



FERNANDO GRANDE-MARLASKA GÓMEZ, (Bilbo, Bizkaia,) epailea da. Zuzenbide ikasketak egin zituen eta oposaketak gainditu ondoren epaile ibilbidea hasi zuen. Postu desberdinak izan ondoren Barne Ministroa da Pedro Sanchezen gobernuan.

Bere homosexualitatea argitaratzen lehen ministroa izan da



TIM COOK [Apple Inc.](#) konpainiako zuzendari ejekutiboa 2010 urtetik. Steve Jobs-en ordeaz hartu zuen ardura. Nike konpainiako ejekutiboa bere bai da.

Komunikatu batean gay zela argitaratu zuen eta gutxiengo bateko partaide izateak bere “errinozeronte azala” gogortzen lagundu ziola” eta hau, aldi berean, lagungarri izango zitzaiola Apple moduko konpainia gobernatzeko.



EDUARDO LÓPEZ COLLAZO. idiPAZ-en zuzendari zientifikoa. Minbiziaren ikerketan punta-puntako zientifikoa. 400 ikertzaile baino gehiago daude bere zuzendaritzapean.

Influentzia handikoen homosexualen artean kokatzen dute.



BEN BARRES, estatu batuar neurobiologoa (1954-2017). Zelula mota batzuk ikertu ditu, zelula glialarrak zehazkiago. Egindako ikerkuntzengaitik komunitate zientifikoaren aitortpena jaso zuen.

1997. urtean genero aldaketa egin zuen, 40 urtez emakume baten gorputzean bizi izan zen, Barbara zuen izena orduan. Stanford Unibertsitatean Medikunza arloan lortu zuen plaza eta generoz aldatu ondoren emakume izateagaitik jasan zuen sexismoa salatu zuen.



JÓHANNA SIGURÐARDÓTTIR [Reikiavik](#)en jaio zen, islandiako politikoa da. Gizarte segurantz ministroa izendatu zuten 2007. Urtean.

[Socialdemokrata da](#), Islandiako parlamentuan parte hartu du, zortzi aldiz izan da aukeratua.

2009an islandiako lehen ministroa izendatu zuten. Mundu mailan aukeratu den lehen Presidente lesbiana izan da.

LGTTBI GLOSARIOA

LGTTBI hiztegiai trebatuta ez daudentzako oinarritzko hiztegia da hau, oso argi eduki behar dugulako zeren gainea hitz egiten ari garen aniztasun afektibo seksualaz hitz egiten dugunean.

Hiztegia behar dugu genero eta identitate seksualen gainea hitz egiteko, hauek jendearen suposizioetatik kanpo daudenean pertsonak bisibilizatzeko eta balidatuta sentitzen lagutzen dutelako.

Gainera, hiztegi propio izatea norberaren identitatea deskribatzeko aukera izatea liberatzailea da lengoia bikoiztiarreetik aldentzen gaituelako, eta honela sexua era berean esperimientatzen dutenen artean komunitatea sortzen du. Denok daukagu definitzen gaituen hizkuntza izateko eskubidea.

Androginia:

Biko eredua ukatzea (ikusi Biko) eta generoen dinamismorako edo joan-etorrirako ahala defendatzea. Askoren ustez, generoaren estereotipoek txiki-txikitatik presionatzen gaituzte, antzematen zaigun generoari dagozkion portaera-jarraibideei hel diezaiegun.

Asexuala:

Erakarpenik sentitzen ez duen baina maitasuna senti dezakeen pertsona.

ε

Binario (eredu binarioa):

Jendartean bi genero (femeninoa eta maskulinoa hain zuzen) baino ez daudela sinesten duen antolaketa sistema.

Bisexuala:

Eredu dikotomiko batetik ulertuz, bi sexuekiko ekarpena sentí dezakeen pertsona. Nahiz emakume nahiz gizonekiko erakarpena sentitzen duena.

ε

Cis:

“Cis” pertsonatzat jotzen da jaiotzerakoan esletutako identitatea eta sentitzen duena bat datozenean. Alegia, medikuek erabakitzen dutena ez datorrenean kontraesanean pertsonak sentitzen duenarekin.

ε

Desioaren orientazioa:

Desiraren joera identitate mota batekiko zuzentzera edota honen existentzia eza, eragiten duena desiraren orientazio homosexual, heterosexual edo bisexuala izateaz hitz egin ahal izatea.

Drag-queen:

Emakumez jantzi eta maiz handizkatutako feminitatearekin edo emakume rolekin jarduten duen pertsona da, sarritan gizonezkoa. Normalean entretenitu edo antzeztea da euren xedea

ε

Generoa:

Maskulinoa edo femeninoa izan daiteke, ezaugarri psikologikoak edo emozionalak kontuan hartuta.

ε

Heteroauzkotasuna:

Arau sozial bat da. Arau horren arabera, herritar guztiak heterosexualak, zuriak, ezgaitasunik gabeak, gazteak, erdi mailakoak, arrak eta kristauak dira. Gainontzekoak desberdinak dira eta “arazo” gisa ikusten dituzte.

Heterossexuala:

Eredu dikotomiko batetik ulertuz, beste sexu identitateko pertsonetako erakarpenera sentitzen dutenak. Hau da, gizonetako erakarpenera sentitzen duten emakumeak dira eta emakumetako erakarpenera sentitzen duten gizonak dira. Sexologian desiraren orientazio heterossexualaz hitz egin ohi da.

Homossexuala:

Sexu identitate berdineko pertsonetako erakarpenera sentitzen duena. Sexologian desiraren orientazio homossexualaz hitz egiten da.

Genero identitatea:

Tradizionalki pentsatu da identitatea ezaugarri konkretu batzuen arabera eraiki dena dela, eta horrela ulertu da ere hemen lantzen den gai honetako. Ordea, identitatea da norberak bere sentimenduen arabera egiten duen atxikimendu boluntarioa kategoriatik ateratzea.

Identitate EZ Binarioak:

Emakume eta gizon kategoriatik identitateetatik at kokatzen diren pertsonak.

I.E.B. atzerikapean errealitate anitz aurki ditzakegu, hona hemen batzuk: genderqueer, ageneroa, transgenderoa...

Intersexuala:

Genital anbiguoak dituen pertsona edota bi sexuei lotutako ezaugarri biologikoak dituen.

Lesbiana:

Emakumetako erakarpenera sentitzen duten emakumezkoak dira. Emozionalki edo fisikoki sexu bereko norbaitek erakartzen duen emakumea

En lenguaje de signos: <https://www.youtube.com/watch?v=w7SajTYilw>

LGBTI+:

Ondoko siglak barne hartzen dituen kolektiboa: lesbiana, gay, trans*, bisexual, intersexual. Gehi ikurrak adierazten du sigla bakoitzaren barruan dagoen pertsona moten pluraltasuna eta baita sigletan ez dauden beste kategoriatik batzuen barne-hartzea.

Arauzkotasuna:

Jendearengandik “espero dena” eta “normaltzat” jotzen dena. Sexualitatearen arau eta eredu desiragarrian bilakatzen dena.

Ortzadarra

Ingelesez rainbow. LGBTI pertsonen harrotasunaren ikurra. Gehien erabiltzen den adierazpidea bandera bat da, batzuetan “askatasunaren bandera” deitzen dena. Gorriak bizitza irudikatzen du, laranja sendabidea, horiak eguzkiaren argia, berdeak natura, urdinak lasaitasuna/harmonia eta moreak espiritua. Ortzadarraren banderaren jatorrizko diseinatzailea Gilbert Baker izan zen, 1978. urtean. Bakearen banderak horren antza dauka, baina ez da berdina: zazpi koloredun bandera hori Picassoren diseinu batean oinarrituta dago eta lehenengo aldiz 1961. urtean altxatu zen, Italiako protesta batean.

Outing (norbaiti)

Ingeleseko aditza. Pertsona bat LGBTI edo T dela agerian jartzea haren borondatearen aurka. Erresuma Batuan eta Ameriketako hainbat estatutan enpresaburu batek lege ezin die beste batzuei adierazi langile bat transexuala dela haren baimenik gabe.

Pansexualitatea:

mota guztetako identitateez erakarria sentitzen den pertsona. Alegia, binarismo zurrana gainditzeko duena eta identitate EZ Binarioak adierazten dutenak erakarpina sentitzen duena.

Hizkuntza seinutan: <https://www.youtube.com/watch?v=2FcXLTv79M>

Queer:

Queer hitzak ingelesez "arraro" esan nahi du eta ohikoa izan da hau irain moduan erabiltzea sexualitate normatibo bat ez duten pertsonekin. Queer teoriak dira sexualitatearen normatibitateetik haratago aurkitzen diren gutxiengoak abiapuntu hartuz, genero eta sexualitateari buruz gogoeta egiten dutenak. Malgutasuna eta aniztasuna lirateke bi hitz klabe hauen barruan.

Sexua berriz esleitu:

Sexu fisikoa aldatzeko ebakuntza medikoa, genitalak barne hartuta. Batzuetan, sexua berrestea deitzen zaio. Europa osoan helduen esku dago kirurgia hori, eta osasun sistema publiko batzuetan herritarrentzako prestazioen artean sartuta dago.

Transexuala:

Trans*: beraien burua "cis" kategoriatik at kokatzen duen jendea. Asteriskoak kontzeptuaren aniztasuna azpimarratu nahi du, izan ere, trans* pertsona beste definizio eta esperientzia daudela esan dezakegu. Jaiotzerakoan esleituriko generoarekin ados ez dagoena. Beraz bere gorputzarekin eroso sentitzeko prozesu kirurgiko, hormonal zein psikologikoa gauzatzera behartuta dagoena, bere NANean berak sentitzen duen genero islatu ahal izateko.

Transgeneroa:

Emakume eta gizon etiketa eta izaera tradizionalekin bat ez datozen pertsonak. Identitate zentzuan eta posizionamendu politikoaren zentzuan erabilia.

Jaiotzerakoan esleituriko generoakiko ados ez dagoena, eta ondorioz sistema bitarrari uko egiten diotenak, ez direnak ez emakume ezta gizonezkoen ereduarekin identifikatzen. Normalean, genero batera egokitzeko kirurgiari ez dute egiten.

Trabesti:

Hainbat arrazoi direla eta, jaiotzean jendarteak esleitu diren generoaren kontrako itxura hartzen duten pertsonak. Arropen, jarreraren edo portaeraren bitartez adieraz dezakete hori, etengabe edo ausaz, batzuetan bai eta beste batzuetan ez.

Hiztegia zeinu hizkuntzan:

<https://www.youtube.com/watch?v=Wx2LNGLVZvg&feature=youtu.be&fbclid=IwAR2-2KMk3INxXpion2nixk2Hv1yylC-MB3EqmQ2duJUIAoUBSZB2TybCey4>

<https://www.youtube.com/watch?v=5VZQ9z9pMCQ>



Bibliografia- materiala- kontsultutako webpeak

- **¿Por qué el rosa es de niñas y el azul de niños?.** El Pais. 18 de nov. 2014
- **Diferentes formas de amar.** Guía para educar en la diversidad afectivo-sexual. COGAM-CCOO
- **I've got those evidentiary blues (and pinks).** Huffpost.
- **Icons Who made LGBT History.** A teacher's resource from Time for inclusive Education
- Jo Paoletti: When did Pink become a feminine color?
- **Sexualitatearen koloreak.** Euskadiko Gazte kontseilua. 2017.
- **Ikasgelan sexu-heziketa lantzeko eskuliburua** Guztiok.
- **When did girls start wearing Pink?.** www.smithsonian.com